

## IRTEERA KULTURALA – CONDADO DE TREVIÑO - LAGUARDIA

2019ko maiatzaren 2an, osteguna, Gipuzkoako Plazan elkartu ginen, puntu-puntu bezala, Condado de Treviñora eta Laguardiara irteera egiteko izena emana genuen taldea.

Donostiatik irten ginenean euritsu zegoen, eta beldur ginen euria gurekin etorriko ote zen egun osorako. Baina kilometro gutxi batzuk egin eta gero, utzi egin zion euria egiteari, eta aurreikusita genuen programa osoaz gozatzeko aukera izan genuen.

Gasteiz inguruko Puerta de Europa Zerbitzugunean gelditu ondoren, Kalearte Elkarteko gida jaso genuen La Puebla de Arganzóneko sarreran. Autobusera igo bezain pronto hasi zen Konderriaren historiari eta geografiari buruz hizketan, zergatik dagoen Burgosen barruan, Araba barneko uharte bat izanik; eta azaldu zigun, halaber, zertatik bizi diren bertako herritarrak eta beste hainbat xehetasun.

San Vicentejora abiatu ginen zuzenean, eta han bertako eliza erromaniko txikia, XII. mendearen amaierakoa, ikusteko aukera izan genuen. Ajarteko harrobitik ekarri zituzten eliza egiteko harriak (San Vicentejutik 6 km-ra). Absidean hareharri arrosa-kolorearen tonalitateak ikusten dira, eta baita harginen marka ugari ere. Erromanikoaren bitxi bat, inondik ere.

Ondoren, Treviñora joan ginen. 1161. urtean sortu zuen herria Nafarroako Antso VI.ak. San Pedro eliza XIII. mendeko eliza gotiko bat da, baina barrokoa du dorrea. Aurrealdea erromaniko berantekoa du, eta interes handikoa da apaingarrien eta ikonografiaren ikuspegitik. Kanpoaldean Andre Mari Zuriaren harrizko irudia dago, XIII. mendekoa.

Treviñoko herrian barrena egindako ibilbidean Treviñoko Kondearen jauregia izan zena ikusi genuen (gaur egun udaletxea), eta baita etxe armarridunak eta San Joan elizaren kanpoaldea ere.

La Puebla de Arganzón-en Erdi Aroko zubia eta Jasokundeko Andre Mariaren eliza ikusi genituen. Barruan, 1535. urte inguruko erretaula platereskoa ikusteko aukera izan genuen.

Bisita horren ondoren, 13,45ean gutxi gorabehera, gida-lanetan jardun zuen Gonzalok agur esan zigun.

Handik Laguardiara abiatu ginen, eta bertako Doña Blanca jatetxean bazkari ezin hobea genuen zain.

Arratsaldean, bertako gidarekin (Amelia), Laguardiako eremu harresituaren barrualdean ibili ginen. Udaletxeko fatxadan dagoen erloju bereziak nola funtzionatzen duen ikusi eta gero, Santa María de los Reyes elizara abiatu ginen, eta bertako portiko polikromatua eta elizaren barrualdea ikusi genituen. Ondoren, Laguardian barrena jarraitu genuen gidarekin, bertako kaleketatik barrena, eta Páganos behatokitik eta San Juan elizaren kanpoaldetik igaro ginen.

18,30 inguruan abiatu ginen Donostiara.

Giro ezin hobea izan genuen taldean, eta, eguraldi fresko eta lehorrari esker, egun politaz gozatu genuen.